# Comunicado íntegro leído al término del alarde antifascista del 12 de octubre en Bilbao.

ALARDE ANTIFAXISTA :: 13/10/2019

Gora atzoko, gaurko eta biharko erresistentzia antifaxista!

El comunicado fue leído por 9 personas, cada una en representación de los 9 batallones que tomaron parte:

1- Meabe 2. STALIN.
2- Malatesta.
3- Lenago Il!
4- Arana Goiri.
5- Larrañaga.
6- Lenin.
7- Olabarri
8- Rosa Luxemburgo.
9- Leandro Carro.

Una vez leído el comunicado se entonaron los siguientes himnos: " Internazionala", " A las Barricadas" y " Eusko Gudaria".

GORA ATZOKO, GAURKO ETA BIHARKO ERRESISTENTZIA ANTIFAXISTA!
GORA BORROKA ANTIFAXISTAN ERORITAKO BURKIDE GUZTIAK!

Ohorez eta duintasunez beteriko izenak, gure herriko memoria borrokalari antifaxistan aztarna utzi dutenak, azken 8 hamarkada hauetan zehar geldiunerik gabe, atsedenik gabe antolatutako eta tinko mantendutako Erresistentzia Antifaxistari argia eman dioten izar itzalezinak.
Al igual que en los años 30, nos une un sentimiento, las ganas de cambiar el mundo, de luchar por la igualdad, por la justicia, por la libertad. La necesidad que sentimos de seguir viviendo de pie, sin claudicar ante la opresión, por muy dura e invencible que pueda parecer y por muy bien que se pueda disfrazar. Las negras tormentas que agitan los aires y las nubes oscuras que nos impidan ver no van a conseguir detener la organización y el desarrollo de la lucha por el nuevo mundo que llevamos en nuestros corazones. No puede ni podrá haber paz ni reconciliación posible con los que nos fusilaron y nos tiraron a cunetas ayer, con los que nos metieron en campos de concentración, con los que nos violaron y torturaron en cuarteles y comisarías. Ni con ellos, ni con sus herederos ni con los que tanto se preocupan por adornarles el chiringuito que sostienen para mantener sus privilegios. El espíritu combativo de la clase obrera, de los pueblos oprimidos, es el hilo conductor del antifascismo que queremos reivindicar en el día de hoy.

Bilbotik, Euskal Herritik, gure irrintzia haizeratu nahi dugu eta kapitalismoak eragindako zapalkuntza mota guztiak sufritzen duten guztiekin bat egin. Asko gara, bat egin dezagun, zuzen ditzagun gure kolpeak oligarka nazkagarri eta burges madarikatuen faxismoa gehien

kaltetu dezakegun gunera. Ez dago faxismoa borrokatzerik berau sorrarazten duen kapitalismoa borrokatu gabe. Besarkada bero, goxo eta borrokalari bat gaur egungo Erresistentzia Antifaxistaren adierazpen ezberdinetan murgilduta dauden guztiei. Bizkaiko Metaleko langileen borroka eredugarria. Catalunyako herri eta langile sektore kontsekuenteen erabakimena. Etxegabetzeak gelditzen saiatzera joaten diren solidarioak. Hilabete luzez txandakako Gose Greban dauden preso sozialak. Larunbatero Frantziar estatuaren aurpegirik faxistenari aurre egiten dioten txaleko horiak edo Ekuadorreko kaleetan gure bidea zein izan behar duen argitzen digutenak. Asko eta asko gara, munduko txoko guztietan, etorkizun askearen bidean sua pizturik mantentzen dugunok.

Sabemos que es un camino duro y difícil. Somos conscientes de que muchas veces es complicado ver la luz a lo largo de su recorrido. Pero no tenemos más remedio que recorrerlo, ya que la única lucha que se pierde es la que se abandona y abandonar la lucha sería dejar morir los sueños e ideales de todos aquellos y todas aquellas gudaris, milicianos y milicianas, voluntarios y voluntarias, militantes, camaradas, compañeros y compañeras y combatientes antifascistas que a lo largo de casi un siglo de historia lo han dado todo por un futuro que merezca la pena ser conquistado. Izan zirelako gara, garelako izango dira…. Irabazi arte!

Adi ibili behar gara, esnatu behar gara, antolatu behar gara, gure burua ezagutza ezberdinekin jantzi behar dugu, kapitalismoaren, inperialismoaren eta faxismoaren erasoaldien aurrean prestatu behar gara. Aurrean daukagun etsaia handia da eta bitarteko sendoak ditu. Gutako bakoitzaren indar nagusia inguratzen gaituen errealitateaz kontziente izatea da, eta horren aurrean posizioa hartzea, ausardiaz eta erabakimenez. Kolektiboki daukagun indarrik eraginkorrena batasuna da. Batasun borrokalaria, borrokan aritzeko batasuna, borroka egiteagatik eratorritako ondorioen aurreko batasuna, klaseko elkartasunean oinarritutako batasuna, gure izakera eta nortasun politiko propioa baztertu gabe borrokaren bidean bat egiten dugunon arteko batasuna. Kapitalismoak dakarren katai ta zapalketa izan dadila guretzat indar askatzailea. Batasun Antifaxista!

Desgraciadamente, pero también objetivamente, el estado español sigue siendo un podrido aparato represivo organizado en manos de los mismos que ganaron la guerra en el 39, destinado a defender sus privilegios. Tras la derrota de 1939, fueron muchos y muchas los que continuaron la Resistencia a fuerza de conciencia, de convicción, de dignidad y coraje. Generación tras generación, las filas de la Resistencia Antifascista se han ido renovando a lo largo de estas décadas y decimos alto y claro que esa Resistencia no se apagó ni con el terror falangista, ni con la muerte de Franco, ni con la imposición de la Constitución monárquico-fascista, ni con las salvajes reconversiones industriales que tan duro azotan a la clase obrera, ni con el GAL, ni la heroína, ni la Audiencia Nacional, ni la tortura practicada por todos los cuerpos policiales. Tampoco lo han conseguido todos los traidores y sinvergüenzas que en nombre de la realidad y de lo posible se han ido incorporando al régimen antes o después. Unos y otros no han podido con la Resistencia Antifascista. Ni con el palo del terrorismo de estado ni con la zanahoria electoral.

Mugimendu Antifaxista sendo, borrokalari prestu eta antolatu bat eraiki behar dugu. Gure

bazterretik eta txikitik
eragiten, herri antolakuntza eta mobilizazio borrokalaria berpizteko gai izan behar gara, egoerak eskatzen duenean
batera-jotze indartsuak antolatzeko gaitasuna izateko. Gaur burutu dugun ekimena eredutzat hartuz, batera joz,
hamarkadetan mantendutako sugarrari jarraipena emateko deia zabaltzeko baliatu nahi dugu. Gaur eta hemen,
bere burua Klase Borrokaren baitan kokatzen duen Mugimendu Antifaxista batek aldarrikapen orokorren gaineko
eztabaida handirik ez du behar. Zapaltzaile eta zapalduen, esplotatu eta esplotatzaileen arteko gatazkan azalpen
gutxi dira eman beharrekoak. Gaur eta hemen aurpegia zuritu ezinik dabil estatu burgues hipokrita, bere ongizatea
eta zuzenbidea zertan geratu diren ikusten dugularik. Ez dago aterabiderik ez eta konponbiderik kapitalismoaren
baitan. Klase sozialak dauden bitartean ez da bakerik izango. Denak ala inor ez, dena ala ezer ez, bakarka ezin da,
fusilak ala kateak. Borroka da bide bakarra!

El antifascismo, si pretende seguir considerándose como tal, está obligado a defender de manera consecuente un
Programa Popular para la Ruptura Democrática. No es nada nuevo. Ayer y hoy, las mismas reivindicaciones
sustanciales que llevaron en 1936 al Frente Popular y las masas trabajadoras a tratar de ejercer una serie de
derechos que a día de hoy siguen prohibidos y conculcados. Necesitamos poder trabajar y vivir dignamente, sin
usureros, explotadores y especuladores que además de chuparnos hasta la última gota de nuestra sangre se están
enriqueciendo hasta no saber ni qué hacer con su maldito dinero. Queremos ejercer libremente el derecho de
autodeterminación en Euskal Herria y queremos que todos los pueblos y naciones oprimidas y colonizadas tanto
del estado español como de todo el mundo participen en pie de igualdad en la constitución de un nuevo orden
mundial basado en la cooperación, la solidaridad y el respeto mutuo. Necesitamos educación, sanidad, servicios
sociales públicos y de calidad destinados a construir una sociedad que rompa con la degeneración rutinaria y el
suicidio diario al que estamos asistiendo. Acabar con las ETTs, los contratos basura, los privilegios de la monarquía
fascista, de la Iglesia, los desahucios. Tenemos que parar al imperialismo y su barbarie genocida articulando la
solidaridad proletaria e internacionalista en nuestras tareas diarias y promoviendo la denuncia de los estamentos
mundiales más reaccionarios como la OTAN, brazo armado del monopolismo fascista

internacional. Queremos a los presos y presas en la calle pero no a cualquier precio, es por ello que necesitamos una Amnistía llena de contenidos y dignidad que arranque a nuestros combatientes y compañeras militantes que por ejercer derechos democráticos o defenderlos de manera consecuente siguen resistiendo en las cárceles fascistas. No queremos volver a llorar la muerte de ningún obrero ni obrera en su puesto de trabajo, o por el asesinato de ninguna mujer que esté viviendo el más crudo infierno impuesto por el sexismo patriarcal, o por todos y todas los seres humanos desposeídos que deambulan errantes por el mundo solo con lo puesto y no encuentran más que fronteras, mafias, violencia, cárceles, campos de concentración y un océano que se los traga.

Agur ez burkideak, gero arte baizik. Egunero zapaltzen bagaituzte, egunero egin beharko dugu borroka, egunero berpiztu Erresistentzia Antifaxistaren arima, egunez egun bere lerroak indartu, ematen ditugun pausuetan sinistuz eta gure burkide guztiak, gaur egungo barrikadaren alde berean ditugunak babestuz eta errespetatuz. Espetxeetako isolamendu ziegetatik, azken fabrikara. Langabeziaren ilaretatik, azken langile auzogunera. Langileriaren belaunaldi berriek betetzen dituzten ikastetxeetatik azken barrikadara. Herri Fronte Antifaxista osatu dezagun, antolatu dezagun, batasunerako gune eta borrokarako bitarteko eraginkor bilakatu dezagun. Dena dugu irabazteko, soilik kateak galtzeko. Batek gose diraueno ez gara gu asetuko. Bat inon loturik deino ez gara libre izango. Borrokarako grina berpiztu dezagun, gure indarrengan sinistuz eta XXI mendeko militantzia antifaxistari bultzada antolatua eman diezaiogun. Hemen amaitzen da herri antolakuntzaz, gure ilusio guztiarekin, ideia eta eskuekin eta gure poltsikoetatik ordainduta aurrera atera dugun Alarde Antifaxistaren ekimena. Hau da bidea. Alardea gaur amaitzen da baina borrokak darrai. Hurrengora arte, gudari eta milizianoak. Hurrengora arte, kamarada eta burkideak.
Erresistentzia bizirik dago Euskal Herrian. Antifaxismoa bide, kapitalismoa suntsitzea helburu. They shall not pass, non passerant, No pasarán, ez dira pasako. Eutsi gogor eta jo ta ke. Atzo, gaur eta bihar,

FAXISMOA SUNTSITZEA DENON ARDURA DA
GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA.
GORA BORROKA INTERNAZIONALISTA.
GORA MUNDUKO LANGILERIA.

GORA ERRESISTENTZiA ANTIFAXISTA

---

**EAJ PNV**
ITXAS ALDE
ARABA
IBAIZABAL
GORDEXOLA
ITXARKUNDIA
LOIOLA
AMAIUR
OTXANDIANO
ABELLANEDA
ARANA GOIRI
MUNGIA
PADURA
LARRAZABAL
MALATO
KIRIKIÑO
MARTIARTU
MUÑATONES
REBELIÓN DE LA SAL
SUKARRIETA
SIMÓN BOLÍVAR
ARALAR
IRRINTZI
ALKARTXEAK
SASETA
ARIZTIMUÑO
GOGORKI
SARASKETA
**PSOE**
FULGENCIO MATEOS
INDALECIO PRIETO
MARTINES ARAGON
MADRID
PABLO IGLESIAS
CARLOS MARX
ASTURIAS
JEAN JAURES
MEXICO
GUILLERMO
TORRIJOS
GONZALEZ PRIETO
MANUEL LLANEZA
UGT 12
LARGO CABALLERO

STALIN
UNÍOS HERMANOS
PROLETARIOS
RUSIA
DRAGONES
CASTILLA
AMUATEGI
CULTURA Y DEPORTE
OCTUBRE
**PCE**
LARRAÑAGA
ROSA LUXEMBURGO
FACUNDO
PEREZAGUA
KARL LIEBKNECHT
LEANDRO CARRO
SALSAMENDI
LENIN
MAOC 2 GIPUZKOA
**CNT**
ISAAC PUENTE
SACCO Y VANZETTI
BAKUNIN
CELTA
MALATESTA
DURRUTI
CNT
**IZQUIERDA REPUBLICANA**
AZAÑA BIZKAIA
AZAÑA GIPUZKOA
ZABALBIDE
CAPITÁN CASERO
GARCÍA HERNÁNDEZ
PÍ Y MARGALL
**ANV-EAE**
OLABARRI
EUZKO INDARRA
ANV HIRU
AZKATASUNA
**JAGI JAGI- EUZKO MENDIGOXALE BATZA**
LENAGO IL
ZERGATIK EZ?
**ELA SOV**
SAN ANDRÉS
SOLIDARIDAD

OBREROS VASCOS
**UNIÓN REPUBLICANA**
FERMÍN GALÁN

---

*https://eh.lahaine.org/comunicado-integro-leido-al-termino*